

ZABARRE ETA BEGIBAKAR KAPITAINAK

Begibakar itsasuntzi batez zihoan, Zabarre, Hankakbakar eta Bizarzurirekin. Eta bapatean, **boounm...** izugarrizko danbatekoa. Bizargorri eta bere itsas-lapurrak ziren. Orduan, Zabarrek esan zuen:


- Itsaslapurrak begibistan!
- Prestatu estriborreko kainoiak!
- Hemen Bizargorri kapitaina! Zein dago hor?
- Hemen Begibakar kapitaina!
- Zabarre! Prestatu kainoiak!

Bounmm, bounmm, bounmm!

Eta azkenean, untzi beltza hondoratu egin zuten. Ondoren Lezora itzuli eta ospatu egin zuten. A, eta Bizargorriren altxorra denon artean banatu egin zuten.

Hura festa hura!

IRANDATZ AURKENERENA ARBELAITZ



Eta bapatean, „booumm! izugarrizko danbatekoa. Bizargorri eta bere itsaslapurrak ziren.